

# LABURKINDEGI OROKOR BATEN BEREZITASUNAK ETA EKARRI LEXIKOA KAZETARITZA-TERMINOLOGIAREN ALORREAN

*Jakobe PALAZIO ARKO-ARTATZA*

Kazetaritza Saila. EHU

## 1. Laburkindegi orokorraren sorreraz eta ezaugarriez

Kazetaritzaren terminologiatik beretik abiatuta orain zenbait urte interes hartu nuen ene lanbidean erabiltzen ziren hitz-laburtzapenetan. Laster konturatu nintzen *compendium* terminologikoak osagarri izan zitezkeela, gainegitura sortuz, lanbide espezifiko (kazetaritza kasu) baten metalaburkindegi antzeko zerbait lortzeko.

Lehenik argiro ikusi behar ditugu zenbait bereizgarri hitz-laburtzapenak biltzeko orduan. Alde batetik, laburtzapenon izaerari berari datxezkion aldakiak —forma atalkatzea ahalbidetzen duen kontzeptualizazioaz ari naiz—; eta bestetik, alor tematikoak errepresentatzeko termino kokagarriak diren aldetik laburtzapenok duten bereizgarritasuna. Bi parametro hauek kontutan hartuta, lanaren hasiera errazturik dugu objektuaren izaeraz eta formaz edo itxuraz jabeturik baikaude. Garaia heltzen da, bada, alor teorikoa osa dezaketen eta irakur daitezkeen gaiak eta materialak batzeko. Hitz-laburtzapen mota desberdinen definizioak abiaburutat hartuta, sailkatu egiteari ekin behar zaio, hots, siglen, akronimoen, laburduren eta abarren ezaugarri bereizgarriak erkatu eta antolatu.

Hitz-laburtzapenen alorrean aritu direnek ongisko dakite hizkuntza bakoitzean badirela esparru honetan objektu beraren definizio desberdinak, nahasteak eta ñabardura aipagarriak. Lar laburtzapenen alor teorikoa, beraz, mugatu beharra zegoen ordura arte euskal hizkuntzan egindako saio bakanak bilduz (1) eta segida emanez. Horrela laburtzapenen sailkapena finkatzeko asmoz, artikulu honen lehenbiziko eranskian agertzen den eskema aurkeztu nuen.

Bigarrenik edo aipatu berri dudan lehenbiziko langintzaz batera, hitz-laburtzapenen *compendiuma* zehaztu beharra zegoen. Aukerak desberdinak ziren: kazetaritzaren alor espezifikoak baino ez batu (IFJ, IAMCR, DAB...); kazetaritza euskarrizat hartuta hedabide desberdinetan noizbait agertu diren laburtzapenak jaso kazetaritzaren bilduma terminologikoa daitekeena osatuz; eta azkenik, edonon argitaratu diren laburtzapen bilduma desberdinak jorratu eta terminologiarteko *compendiuma* egin orokortasuna ezaugarri duelarik. Jabeturik egonik bilduma eta hiztegi terminologikoen kazetaritzan zelako konplexutasuna duten (2), zaila izaten da horrelako lan bat hastea, joera metodologikoa finkatu gabe edukita.

Terminologia definitzen badugu “aggregate of terms, which represent the system of an individual subject field” (3) bezala, erraz uler dezakegu espezifikoak ez den

kazetaritzaren lan esparruko terminoak (praxia) alde batetik, eta alor tematikoari soilik atxikitako terminoak bestetik (berez terminologikotasuna osatzen duena) uztargarri izan daitezkeela kazetarien baliagarritasunaren mesedetan, berbategi (laburkindegi, kasu honetan) terminologikoez harantzago joanez, zeren, azken buruan, kazetaritzak hainbat diziplina eta lanbide bere egiten baititu beraiei buruzko informazioa ematen den une beretik.

Hortaz, erabakia hartu nuen laburkindegia hiru fasetan egiteko, azken xedea laburkinen *compendium* orokorra egitea zelarik. Laburkindegi terminologikoa hasieran; kazetaritzan oinarritutako laburkindegia, bigarrenik; eta beste urratsa bat emanik, euskararen lehen laburkindegi orokor estandarra osatzea zen ibilbidea (4).

Lehenbiziko fasea laburra izan zen, eginda baitzeuden jada zenbait laburtzapen bilduma hizkuntza indartsuetan —ingeles, gaztelania, alemaniera eta errusieran batez ere—, euskarara ekar zitezkeenak. Biltze lanak zekarkidakeen arazo arantzatsuen laburtzapenak itzultzea eta moldatzea zen. Bigarren fasean abiatu aurrez —luzeagoa eta gogorragoa izango zelakoan— eta onura gehiago lortzeko asmoz, fitxa bat prestatzeari ekin nion. Fitxa eredu egin ostean (5), laburkinen erabilerari buruzko datuak edukitzearren (ez dezagun ahantz euskara deklinazio kasuak dituen hizkuntza trinkoa dela) prentsa inprimatura jo nuen. Euskarazko prentsa garaikidea begiztatuz —Argia hilabetekaria, Hemen eta Eguna astekariak eta geroago Euskaldunon Egunkaria kazeta— sigla desberdin bakoitzeko fitxa beteaz, landa-lana burutu nuen aski exhaustiboki arakatutako aleetan, harik eta hirugarren fasean hasteko erabakia hartu nuen arte. Azken fase honetan abiatzeaz batera, *compendium* orokorraren itxura-emate eta taiautze lana egiten hasi nintzen. Hirugarren fasean, nolabait, laburkindegi diferenteetatik, exhaustiboa izan barik, ohiko laburkinak jaso eta nire laburkindegira ekartzea zen zeregina. Beste autore batzuek *ad hoc* egindako bilduma terminologikoak baliatu nituen bizitzaren esparru garrantzitsu guztiek islada eduki zezaten, kazetaritza informatiboak ezaugarri nagusi bat baitauka: dena izan daiteke informagai, guztiaren jabe izan behar, *orok oro* esamoldeak dioena alegia, *terminologiartekotasuna* larriki esanda.

Kazetariengan pentsatuz eta beraien estilo-liburuetan agertzen diren ohiko laburkinen bildumez harantzago joanez, nazioartekoa eta orokorra den bilduma honetan laburkinei buruzko datuak jarri nituen ahal izan heinean. Martínez de Sousa autore espainiarrak lehenago egin bezala, laburkinek ostentzen duten izeneztapenaz gain, zerbait gehiago eskaini behar zen, kazetariak maiz irrikitan baitira elkarte, erakunde edo dena delakoa ordezkatzan duen laburtzapenari buruzko datuak lortzeko; hala nola, noiz sortu, noiz desagertu edota izeneztapenaren argigarri izan daitekeen beste daturen bat (zeren atala den, politikoki non dagoen kokaturik, nor sortua etab.). Horrekin batera sarrera bakoitzak alor tematikoaren adierazgarri izan behar zen laburkin informatiboa eramatea ezinbestekoa zen esanguraren jabetzaz eta laburkinaz berataz hobeto jabetzearren. Kontua, esan bezala, kazetarien mesedetan datu erantsiak ematea zen.

Tesi lanaren parte izan zen nazioarteko laburkindegi orokorra aurkeztu nuenean, era arruntean (alfabetikoki sailkatuta) presentatzeaz gain, alor tematikoka ere agertu nuen, hau da, azpilaburkindegi terminologikoak bailiran. Hortaz, kazetaritzaren laburkindegi terminologikoa buruturik utzi nuen bidenabar.

*Compendiuma* 1992an amaiatu nuen, esan bezala, tesi moduan aurkezteko. Geroko urteetan laburkinak biltzen eta datuak gaurkotzen segitu nuen 1997. urtean beste argitarapen batean itxaropena jarririk. Eta zergatik aurtun? Erantzuna eta epemuga hizkuntzak berak ipini zidan: ordurako Euskaltzaindiak finkaturik eduki behar zituen exotoponimoen gaineko idaztarauak eta hiztegiak urrats handiak emanak izango zituen estandarizazioaren alorrean (hiztegi egokiak).

Aurtongo hasieran, bestalde, argitarapena bikoitza izateko aukeraz jabetu nintzen behin baliabide telematiko berrien posibilitateak gogoan harturik. World Wide Web edo Mundu Zabaleko Sarean ezagutarazteko aukera ezin hobeez jabetu nintzen, paperezko euskarri soilean geratu ordez. Hipermedia prosibilitatzen duen sistema honek beste batzuek ez bezala —Gopher delakoa, esaterako, egun baliogabeturik geratzen da horrelako lan bat argitaratzeko— bidea zabaltzen du jende gehiagok erabil dezan laburkindegi orokorra. Gainera *link* edo loturak egiteko aukerak mundu mailako hiztegi-gintza, datu-banku eta bildumean sarean sartzeko aukera ematen du.

## 2. Laburkindegia Sarean

1997ko ekainean sortu zen hitz-laburtzapenen lehenbiziko zerbitzari telematikoa Euskal Herrian. Hitz-laburtzapenen *compendium* orokor honek LABURZKI du izena eta terminologiaren atal berezi honetan, sigla, akronimo, laburdura eta sinboloen sailean alegia, euskara munduko hizkuntza nagusien parean jartzen du, Internet deritzonaren 3Wen partzuergoan ingelesak eta alemanierak iritsitakoa euskarak ere bereganatu baitu. Europako hizkuntza diglosikoa eta modernoa den honek aportazio lexikografikoa egiten dio Sareari, era honetan Nevada-Renoko Unibertsitateko Basque Studies Program-eko Linda White-k Mundu Zabaleko Sarean egindakoari segida emanez.

LABURZKI zibertxoko eleanitza da, oraingoz ingelesdun eta euskaldunentzat bereziki prestatuak dagoela. Sareak ematen dituen ahalbideak aprobetxatuz, LABURZKI ezin zitekeen sor ingelesa, Sareko hizkuntza nagusia alegia, aintzat hartzeke; areago pentsatzen badugu hitz-laburkinen alor hau ingelesaren esparruan nagusiki garatu dela. Horrexegatik eta Euskal Herriaren inguruko hizkuntzek —frantsesak, gaztelaniak eta katalanak, kasu— oraindik ez zutelako Sarean eskaintzen horrelako bitartekorik laburkinen gaineko zalantzak argitzeko eta laburkinak bilatzeko, une ezin egokiagoa iruditu zitzaidan LABURZKI zerbitzaria sortzeko.

Lehenik, *web* orrialde erakargarria egin nahi izatekotan, zibertxokoak atontzeko eta orrialde desberdinak sortzeko programeria egokia behar da ezbairik gabe. Nire kasuan eta Macintosh-en esparruan nengoenez, aldizkari berezituetan aholkaturiko eta altuen puntuatutako “Claris Home Page 2.0” izeneko programa erosi nuen, baita “Web Explosion” web-iruditegia ere orrialdeak erakargarri egiteko. Home Page deritzonak, WYSIWYG sistemakoa denez (6), denbora asko aurrezteka permititzen dizu, HTML lengoaiari soka-eta zertan egon behar ez baitago. Gainera, dituen abantailen artean bi gauza aipatu nahi nituzke: orrialdeen telekargak zenbat irau dezakeen jakiteko funtzioa dauka (7) eta Claris enpresaren FileMaker Pro programa datutegi-egile ezagunarekiko bat-egite osorantz doa. Azken hau garrantzitsua zen ene kasuan LABURZKIren datutegia FileMaker Pro-ren 3. bertsioan baitago sarturik.

LABURZKI ikustaldi gehiago jasotzeko asmoz, sariketa bat egitea otu zitzaidan. Aurkezpen orrialdean berean jarrita, hitz-laburkortasunaren erabat aurkakoa denaren euskarri zen argazkia agertzen da, Galesko herri-izen luzea daukana, jendearen erantzunen pizgarri-edo.

Mundu Zabaleko Sarean ezin ipin daiteke *web* orrialderik baldin eta zibertxoko egin berria iragartzen ez bada. Internet-en garrantzi berezia dauka publizitateak Sarean dagoen informazio meta eskergaren anabasatik itzurtzeko. Horretan pentsatuz, LABURZKI iragartzeko plana egin nuen eta honako urrats hauek eman elkarren segidan:

1. Ziberian: Sareko motor bilatzaileetara jo zibernabigatzaileek LABURZKIri buruzko datuak berehala aurki ditzaten (URL edo helbidea, tamaina, sorrera-

urtea eta ezaugarri nagusiak). AltaVistaren bitartez Sareko 16 bilatzaile nagusietan dago kokaturik dagoeneko LABURZKI.

2. Sorlekuan: LABURZKI Euskal Herriko Unibertsitatean sortu nuenez, bistakoa zen ziberiaririk landa, sorleku fisikotik at alegia, ere iragarri beharra zegoela. Batez ere ikasleengan pentsatuz, paperezko euskarrian iragarkiak egin ziren LABURZKI publizitatzeko.
3. Sorlekuko email-erabiltzaileei: benetan komunitate unibertsitario osoaren zerbitzuan egon zedin, bertako irakasle eta langile gehienei heldu zitzairen posta elektronikoz LABURZKIren berri ematen zuen zibermezua.
4. Aldizkari berezituetan: zalantzarik ez dago egun saltzen dituzten aldizkari hauek eragin berezia dutela zibernabigatzaileengan. Bistan da *hit*-en kopurua igo egiten dela NetUser, Net Conexión, Super Net Magazine edo Netmanía bezalako aldizkarietan URLak agertuz gero. Horrexegatik igorri nien ene txokoazko publizitate-orria bana aipatu puntako aldizkarietara, ingeles eta gaztelaniaren esparrua estaltzeagatik.
5. Euskarazko hedabideetan: Argia astekarira, euskal prentsara eta irrati-telebistara oharra bidali. Azken buruan, kazetari euskaldunentzako lantresna izatea du xede LABURZKI.
6. Gainontzeko hedabideetan eta URLetan loturak bilatuz. Hizkuntza aintzat hartzeke eta LABURZKI nola edo hala edonorentzat baliagarri daitekeela gogotan, hedabide eta zibertxoko terminologiko eta lexikografiko desberdinei bidali informazioa. Esaterako, iruditu zitzaidan ezinbestez ardietsi behar nuela lotura egun horrenbeste *hit* lortu duen “The Web of On-Line Dictionaries” delakoan, non 350 hiztegi dauden ehunen bat hizkuntzatan (8). Sare-leku etnikoak ere izaten dira interesgarriak inoren zibertxokoak iragartzeko. Nire kasuan Buber’s Basque Page delakoa, BMM ziber-hilabetekaria eta Renoko BSPrena nahitaezkoak ziren.

Publizitate oharrekin batera garrantzizkoa zen LABURZKI In analisi erraminta bat jartzea jendearen ikustaldiak kontrolatzeko. Horrela, Analog izeneko programa sartu genuen bisitarien konexio-denbora, nongotasuna eta gainerako datu estatistikoak lortzearen.

Bestalde, LABURZKI datutegiak CGI gidoia (9) eduki behar zuen zibernabigatzaileek eskaturiko datuak prozesatzeko eta datutegira bidaltzeko, beti ere erabiltzaileekiko interfaze egokia bilatuz. Internet-en arauak agintzen duten bezala, EHUko *sysop* edo sistema-operatzailearen baimena edukita, Nagore Mtez. Urkiri eta biok antolatu genituen fitxak erabiltzaileei bi aukera aurkeztuz:

1. Laburkina bera sartuta (kontsulta-egileak laburkinaren esangura zein den jakin nahi du), LABURZKI erantzuna eman siglen, akronimoen eta abarren esanahi osoak eta gainerako datuak agertaraziz.
2. Laburkina sor lezakeen daturen bat sartuta (erabiltzaileak laburkina zein den ez daki eta esangura osa dezaketen zenbait hitz fitxetan sartuz saiatzen da laburkinaren ardiesten), LABURZKI erantzuna eman, kontsulta-egileak sarturiko sintagmako hitz posiblea prozesatuz eta hitz hori daramaten laburkinak (laburkinen esangura luzatuak aintzat harturik) agertaraziz.

Izan ere, bi aukera hauek emanez, ziurtatuta geratzen dira bi kontsulta ahalgarriak, hizkuntza edozein izanik. Bestalde, lehenengo aurkezpen orriak erabiltzaile ingelesdunak daramatza LABURZKI bezalakotsua den Peter Flynn eiretarrarena den eta Cork-eko unibertsitatean dagoen laburkindegira. Peter Flynn-en laburkin zerbitzaria eta LABURZKI elkarren osagarri izanki eta Europako sigla-toki nagusiak bilakaturik, beste hizkuntzetan horrelako pausoa noiz eman zain gaude, Internet-en eta guztion intereserako, Sareak hiperloturen bitartez ziberleku txikerrak gaitzak izan daitezela ahalbidetzen baitu; eta horretan datza hain zuzen Internet-en handitasuna eta erabilgarritasuna. Honi gehitu behar aurki apika —EHUren gainegitura informatikoak aukera ematen digunean— zibertxoko hau *hypermedia* bihurtzeko aukera gogoangarriak, jakina.

Bukatzeko eta LABURZKIren diseinuari gagozkiola, esan beharra dago *splash pantaila* edo *atalasea* jarri zaiola bigarren diseinuan erabiltzaileen telekarga azkartzeko eta arinago informatzeko saretoki honi buruz, urrats handi bat emanez diseinu munduan hirugarren belaunaldiko zibertxoko bihur dadin. Diseinua erakargarri eginez eta *target* edo ikusleria zehatza bilatuz, LABURZKI lehene diseinua urraturiko bidean segitzen du oraingo honetan bisitari espezifikoei erreparatuz, behin Sareko erabiltzaile guztiei aurkeztu ondoren.

## ERREFERENTZIAK

1. José Ramón Etxebarria, Gotzon Egia eta Paulo Agirrebaltategiren aportazio baliotsuak, ez besterik.
2. Lexikografoen langintza zalantza terminoak hautatzeko orduan, kazetaritza informatiboaren ezaugarria baita *orokortasuna* eta *orojasogarritasuna*. Ikusi, esaterako: PRIETO, Florencio. “Diccionario terminológico de los medios de comunicación”, Madril, Fundación Germán Sánchez, 1991.
3. Terminology Forum: [www.uwasa.fi/comm/termino/index.html](http://www.uwasa.fi/comm/termino/index.html)
4. Nik tesia argitaratu baino lehentxeago UZEIk lan ederra plazaratu zuen hitz-laburtzapenen gainean, alor teorikoan zein praktikoan. UZEIren bilduma alor tematikoka zegoen antolaturik erabiltzaileen kontsulta arina zailduz. Hori zela-eta, laburkindegi orokor arrunta egiteke zegoen.
5. Ikusi 2. eranskina.
6. Laburdura horren esangura honakoa da: What You See Is What You Get (ikusten duzuna da aterako zaizuna); HTML delakoan lan egin beharrean, zuzenean dagizu dena testu-prozesatzailea erabiliko bazenu bezala.
7. Berau zaintzea oso garrantzitsua da hirugarren belaunaldiko *web* orrialdeetan, egungo hardwarea eta programeria kontutan hartuz 15 segunduko epemugatik gorago komeni ez dela.
8. Bucknell unibertsitateko Robert Beard estatubatuarrak zuzenduriko sare-leku honek honako helbidea dauka: [www.bucknell.edu/~rbeard/diction.html](http://www.bucknell.edu/~rbeard/diction.html)
9. “Common Gateway Interface” edo Ororentzako Atearen Interfazea bisitari guztiak harremanetan jarri ahal izateko *host*-ean dagoen datutegiarekin, laburkindegiarekin alegia.

## ERANSKINAK

### 1. Hitz-laburtzapenen sailkapena

#### Ahozkoak

- \***laburketak** : ande, mate... (hitz bat baino ez da laburtzen). Ondoko trukamendu mota hauen bidez sortuak:
1. apokopatuak: bizi (bizikleta), tele (telebista)...
  2. sinkopatuak: Lontzo (Lorentzo), haltsu (haltzatsu)...
  3. aferesi bidez eginak: bus (autobusa)...
- \***akronimoak**: sintagma bat osatzen duten berben trunkamendu-elkarkuntzaren bidez sortzen den hitza (modema, tergal, Renfe, radarra...). Hasierako letrak baino ez badira erabiltzen era laburturako, "siglonimoa" sortzen da.
- \***siglonimoak**: adierazburuaren hasierako letrez osaturikoak (laserra, Seat, Unesco...). Letren artean hasierakoa ez den bat tartekatzen bada "akronimoa" sortzen da.
- \***alfonimoak**: elepea (LP), pemeak (PM). Sigla eta siglonimo erabat lexikalizatuak (ebakera kontsonantikoa).
- \***siglak**: sintagma baten hasierako letren ondozkatzea gertatzen denean; ahoz esateko sortuak. Lexikalizaturik ez dauden era laburtuak dira.  
Sigla motak (ebakeraren arabera):
1. Silabikoak: ELA, LAB, HIES, PSOE /psoe/...
  2. Kontsonantikoak edo letrakakoak: EPK, ENN (Ekoizkin Nazional Netoa), PSOE /pe-ese-o-e/...

### Idatzizkoak

- \***laburdurak**: izaera fonikorik ez dutenak. Espazio fisikoari (euskarrian) moldatzeagatik egiten dira.  
Laburdura motak:
1. erregularrak : hizk. (hizkuntza), bat. (bataioa)...
  2. konbentzionalak:
    - a. siglatuak: EEBB (Estatu Batuak, AEB) kasu.
    - b. kontrakzio bidezkoak: dr. (doktorea), jn. (jauna)...
    - c. zeinu bidezkoak (zifrak: 1, 2, 3...).
    - d. gaineko zeinuen bidezkoak: ece (ezen)...
  3. bakunak (*simples*): jk. (jokoa)...
  4. bikunak (*dobles*): JJOO (Joko Olinpikoak), AABB (Amnistiaren aldeko Batzordeak)...
  5. elkartuak (*compuestas*): b.sb. (baldin eta soilik baldin), jn. t. a. (jaun txit argia)...
- \***kriptonimoak**: M.A. (Mikel Atxaga), B. A. (Bernardo Atxaga)...
- \***astenonimoak**: \*, \*\*, \*\*\*...
- \***monogramak**: (Leioa Motor enpresarena). Publizitatean erabildun diren laburtzapenak eta beren grafia errealizazio artiskoa dutenak.
- \***zeinuak**: x, +, &, @...
- \***sinboloak**: zientzia alorrekoak eta nazioarteko erakundeek finkatuak: A (ampere), km (kilometro)...

## 2. Fitxa eredu

## Fitxa eredia

<b>erregistro zbkia.:</b> 12	
<b>LABURKINA:</b> CIA “Central Intelligence Agency”	jatorrizko hizk.: ingel.
<b>laburkin mota:</b> sigla	
<b>itzulpena:</b> Iteligentzia Agentzia Zentrala	
<b>euskal laburkina:</b> ø	
<b>datuak:</b> 1947 urtean sortua	
<b>grafia, deklinabidea eta morfosintaxia:</b> “Peter Wilson, a former CIA and State Department analyst...”	
<b>alor tematikoa(k):</b> pol.	
<b>nondik hartua eta egiaztatua:</b> The European, 68 zb., 2. or. // Mtez. Sousa.	

\*\*\*\*\*

## LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

**Laburkindegi orokor baten berezitasunak eta ekarri lexikoa kazetaritza-terminologiaren alorrean**

Uda honetan aurkeztuko da Mundu Zabaleko Sarean, edo nahiago bada WWW deritzonean, hitz-laburkindegi orokor eta nazioartekoa, hizkuntza erreferentea euskara izanik. Euskaldunentzat bereziki gertaturiko bilduma hau —edo sigla, akronimo, sinbolo eta laburdura *compendiuma*— kazetaritza-terminologian beste urrats nagusi bat izanen da. Web orrialde honek lotura edo *link* onak izango ditu ingelesdunentzat, kontsultagileari hitz-laburtzapenen esanguren alorra hurbiltzearen.

Kazetaritza-hiztegi terminologikoa egiteke dagoen honetan abagunea iritsi da behin Euskaltzaindiak exotoponimo nagusien ortografia eta transkripzioa finkatutakoan, ohiko eta lagun bihurtu zaizkigun termino garden eta opako diren laburtzapenak zerrenda onurazkoan antolatzeko. Eta gai hau jorratu nahi du laburkindegiaren egileak artikuluan.

Izan ere, hiztegi terminologikoa barik, laburkindegi terminologikoa den hau kazetarien alorrari datzekio. Hori dela-eta, komunikazio-artikuluan *compendiuma* nolakoa den, nola osatu den, beste datu-base terminologiko zenbaitekin dituen loturak zein diren eta proiektua bera geroan Sarean egokien nola bilba daitekeen aipagai izanen da.

Sareko leku honek **Laburzki** —**The WWW Abbreviation and Acronym Site**— izena ukanen du eta EHUren zerbitzarian egon da. Artikulua, laburkin-tokia abiapuntu hartuta, harantzago ere joanen da aplikazio informatikoak, diseinuari buruzko joerak eta datu-bankuen sorrerarekin erlazionaturiko erremintak ere aztertuz (datu-baseak, web home-page maker-ak, CGIak...). Hau da, hitz-laburkindegi baten erakargarritasuna eta

erabilgarritasuna posible egiten duten faktoreak aztertzen ditu egileak, terminologia-lanean barrena bete-betea sartuz.

### **Especificidades y aportación léxica de un diccionario general de abreviaciones en el campo de la terminología periodística**

El próximo verano se presentará el diccionario general e internacional de abreviaciones en la Red Mundial o WWW, siendo el euskara el idioma referente. Esta colección, o compendio de siglas, acrónimos, símbolos y abreviaturas, realizada especialmente para las/los vascoparlantes, será sin duda un nuevo avance importante dentro de la terminología periodística. Dicha página de Web poseerá buenos lazos o *link* para aquellos que dominen el inglés, acercándoles a las/los consultoras/res el espacio dedicado a los significados de las abreviaturas de las palabras.

Todavía no existe un diccionario terminológico en el campo del periodismo; no obstante, una vez que la Real Academia de la Lengua Vasca ha fijado ya la ortografía y la transcripción de los principales exotopónimos, nos es posible organizar en listas las abreviaturas, siglas y acrónimos claros y opacos de los términos que son ya conocidos y comunes, trabajo que, sin duda, será de gran provecho. Y éste es el tema sobre el que quiere tratar el autor del compendio en el artículo.

Este diccionario de abreviaciones, que no es un diccionario terminológico, se enmarca en el campo periodístico. Por ello, en el artículo de la comunicación se explicará cómo es el compendio, cómo se ha realizado, qué relaciones tiene con otras bases de datos terminológicas y cuál sería el mejor modo de integrar el proyecto en la Red.

El espacio en la Red se denominará **Laburzki —The WWW Abbreviation and Acronym Site**— y estará en el servidor de la UPV. Tomando el espacio del diccionario de abreviaciones como punto de partida, el artículo irá más allá, y analizará también las aplicaciones informáticas, las tendencias sobre el diseño y los mecanismos relacionados con la formación de los bancos de datos (las bases de datos, los web home-page maker-s, los CGIs...). En otras palabras, el autor analiza los factores que hacen que este diccionario de siglas y acrónimos sea atractivo y de utilidad, incorporándose de lleno en la tarea terminológica.

### **Spécificités et contribution lexicque d'un dictionnaire général de abréviations dans le domaine de la terminologie journalistique**

L'été prochain sera présenté le dictionnaire général et international de abréviations sur le Réseau Mondial ou WWW, l'euskera étant la langue concernée. Cette collection, ou mémento de sigles, d'acronymes, de symboles et d'abréviations, spécialement réalisé pour les basque-parlants, sera sans doute une nouvelle progression importante dans la terminologie journalistique. Cette page de Web possèdera de bons liens ou *link* pour tous ceux qui dominant l'anglais, en approchant les consultants/consultrices à l'espace consacré aux significations des abréviations de mots.

Il n'existe pas encore de dictionnaire terminologique dans le domaine du journalisme; néanmoins, une fois que l'Académie Royale de la Langue Basque aura fixé l'orthographe et la transcription des principaux exotoponymes, il sera possible d'organiser dans des listes les abréviations, les sigles et les acronymes clairs et opaques des termes qui sont déjà connus et communs, travail qui sans doute, sera d'un grand profit. Et celui-ci est le thème que souhaite aborder l'auteur du mémento dans l'article.



Ce dictionnaire d'abréviations, qui n'est pas un dictionnaire terminologique, s'encadre dans le domaine journalistique. Pour cette raison, dans l'article de la communication, on expliquera comment est ce mémento, comment il a été réalisé, quelles sont ses relations avec d'autres bases de données terminologiques et quel serait le meilleur moyen d'intégrer le projet dans le Réseau.

L'espace sur le Réseau s'appellera **Laburzki —The WWW Abbreviation and Acronym Site—** et il se trouvera dans le serveur de la UPV. Prenant l'espace du dictionnaire d'abréviations comme point de départ, l'article ira plus loin, et analysera également les applications informatiques, les tendances sur la conception et les mécanismes qui sont en relation avec la formation de banques de données (les bases de données, les web home-page maker-s, les CGIs...). Autrement dit, l'auteur analyse les facteurs qui font que ce dictionnaire de sigles et d'acronymes soit attirant et utile, en s'incorporant complètement dans la tâche de la terminologie.

### **Specificity and lexical contribution of a general glossary of abbreviations and acronyms in the journalistic terminology field**

Next summer a general international dictionary of abbreviations is to be presented on the World Wide Web with Basque as the referent language. This collection or compendium of initials, acronyms, symbols and abbreviations drawn up especially for Basque speakers will be a major advance in the journalistic terminology field. The web site will have good links for English speakers, bringing those consulting it into the area given over to the meanings of abbreviations.

As yet there is no terminological dictionary for the field of journalism. However once the Royal Basque Language Academy has established the spelling and transcription of the main exotoponyms we can draw up lists of abbreviations, initials and acronyms, both clear and opaque, for terms which are already known and commonly used, which in itself will be highly useful. And this is the subject which the author of the compendium wishes to discuss in this article.

This glossary of abbreviations, which is not a terminological dictionary, fits into the field of journalism. The paper will therefore explain what the compendium is like, how it was drawn up, what links it has with other terminological databases and how the project can best be put onto the Internet.

The web site will be called **Laburzki —the WWW Abbreviation and Acronym Site—** and will be located on the University of the Basque Country service provider. Taking the site of the glossary of abbreviations as its starting point, the article will go on to analyse also computer applications, tendencies in design and mechanisms concerned with the formation of data bases, web home-page makers, CGIs, etc. In other words the author analyses the factors which make this dictionary of initials and acronyms attractive and useful, with full incorporation into terminological work.